

SEBASTIAN SALABERRIA • 'SAGARDOTEGIAK' LIBURUAREN EGILEA

«Oartzungo sagardogile batek patarra botatzen zion sagardoari»

FELIX IBARGUTXI

SEBASTIAN Salaberiak *Sagardotegiak* izeneko liburua plazaratu du *Auspoa* sailan. Orain 81 urte dituen oartzuar idazle eta bertsojartzaile honek gerra aurre nahiz ostean ezagututako sagardotegi eta sagardogileen berri ematen digu bertan. Bilduma horretanxe 60.eko hamarkadan publikatutako beste *Neronek tirako nizkin* sonatu hura izan zen Salaberiaren lehen idazlana.

—Hor liburuan esaten duzu bi eratako sagardoak izaten zirela, emakume-sagardoa eta gizon-sagardoa.

—Emakumeena, gozoagoa. Hori kontatzen dut Faustino Eizmendiren sagardotegiaz ari naizenean. Donostiako auzo batean zegoen, Egian, eta han emakume asko ibiltzen zen. Igande arratsaldeetan, familia asko joaten ziren Faustinoenera meriendatzera, euskaldun eta erdaldun.

—Eta musikarik —trikitilaririk edo— izaten al zen sagardotegietan?

—Ezta pentsatu ere! Nik esaten dut liburuan sagardotegiak piska bat aldatu direla, ze orduan ez zen emakumerik ikusten eta orain asko, eta zigarro erretzen ere, karabineroek baino txukunago.

Karabinoeroek fama handia izan dute zigarro erretzen. Horiak baino egokiagorik ez da izan hemen, zigarro egiten ere. Bazuten astia...

—Orduan bezeroak nola ordaintzen zuen sagardoa?

—Oraingo sistema nahiko jarri berria da. Hogei urte edo gutxiago izango dira hasi zela. Orduan txarro batzutan ateratzen zuten sagardoa, eta zenbat hartu hainbeste ordaindu behar...

Ni mutikoskorra nintzela, boistsei urtekoa, Errenterian bizi ginen eta Alamedan bi sagardotegi ziren. Bata zen Amonaenea, amona bat egoten zelako, eta bestea alargun batena. Eta herriko jendeak *viuda alegre* jarri zion izena.

Ni sagardozale beti izan naiz eta Amonaenera joaten nintzen. «Zer degu txikito?» Eta nik: «Sagardoa». Ematen zidan zurezko kanilatik, eta gero esaten zidan: «Aizu, txikito, itxoin, itxoin, sos batekin bi baso dituzu eta».

—Ze otordu egiten zen?


—Jeneralean, sardin zaharra eta bakailoa saltsan. Legatzak ere jartzen zituzten batzutan etxe-koandreek, kaxuelkada ederrak.

Zuk adituta izango duzu zer esan zion sardin batek besteari: «Somos viejas, pero saladas».

—Txirritaren ibilerak behin baino gehiagotan kontatzen dituzu liburuan zehar.

—Nik gazte-gaztetatik izan nuen afizio handia bertsoarako. Orduan ez pentsa gaurko aukerarik zegoenik. Saiok urriak ziren, eta gehienetan Txirrita eta bere lehengusu Saiburu izango ziren. Nik entzuten banuen Errenteria alde hartan Txirritan kantatu behar zuela, ez nuen faltako.

Gero bertsopaperak ere izaten ziren, baina gaizki ibiltzen nintzen haiek erosteko. Bertsopaperen bat azaldu ezker, huraxe nereganatu



Sebastian Salaberria./AYGÜES

Txirritak pitarra motela bilatu zueneko

Liburuan zehar, Salaberriak behin baino gehiagotan ematen du Txirrita bertsoariaren berri. Hona pasarte horietako bat:

Txirritari eta sagardoari buruz idazten ari naitenez, au ere esan bear det.

Len, garai batean, pitarra izaten zan baserrietako edaria. Norbaitek galdetu lezake zer izaten dan pitarra. Bada, pitarra izaten da sagarra tola-rean jo eta ura bota izan zaio patsari. Pisiorekin zapaltzen dan sagarrari deitzen zaio patsa.

Sagardo mustioa egin bear danean, eta zio urik botatzen. Baiña bai pitarra egin bear danean. Eta, ura bota bear danean, ez du neurri jakiñik izaten. Sagar-urte ona danean, ura gutxiago botatzen zaio. Eta, sagar-urte ona ez danean, geiago.

Ez naiz oroitzen zein baserritan; baiña, sagar-

urte txarra zan batean, zazpi zaku sagarrarekin emezortzi kargako kupela bete omen zuten. Morroiak egun osoa pasa omen zuan errekatik ur karraio.

Txirritak, berriz, oitura auxe zuan, baserri baten ingurutik pasatzen zanean:

—Txarro bat pitar emango al didazute faborez?

Baserri danetan ematen zioten txarro bat, eta bi ere bai. Baiña egun artan bat naikoa zuala esan omen zioten, eta abiarakoan:

—Pitar onek bazeuzkak bi gauza, onak: bata, ontatik edaten duana ez dek mozkortuko; eta bestea, badezutela pixka bateko edaria. Aio, jaunak! Eskerrik asko! Urrenarte!

Baiña ez omen zan urte artan geiago baserri artara joan.

arte ez nuen onik izaten, eta badakizu zer egiten nuen? Gu baserrietik Errenteriarra, lehendabiziko tranbian etortzen ginen, sei eta erdiak aldean. Baserrietako emakume gehienak astoarekin etortzen ziren, eta haiek beti presaka; eta esaten zidaten: «E, txikito, lotuidazu astoa!» Eta nik berriz, hura entzuteko desiratzen. Bai lotu ere txintxo, e!» Haiek ematen zizkidaten txanponekin erosten ni-

tuen bertsopaperak.

Nik behikontu ordu asko pasatzen nuen. Bitartean patrikan izango nituen paperak. Etxera etortzerako igoal hartuko nituen memoriz hamabi bertso.

—Esaten duzu beste pasarte batean nola sagardotegi batzuk urrutik izaten ziren eta linterna eramane behar izaten zen.

—Oartzunen, mendi aldean bazen sagardotegi bat, eta ente-

ratu ginen gero zer egiten zion hango nagusiak sagardoari. Botila bat edo bi patar botatzen zion, ondo astinduz, kupela dena zipritinduz. Gero jendeak handik edan eta, konturatzeko, mozkortu. Hori dena aitona batek kontatu zidan niri. Nagusiak esan zion inori ez kontatzeko, baina hark niri kontatu... Jendeak esaten zuten: «Motellak, baserri hartako sagardoak bai indarra!»

IRITZIA

Mendia dala-ta

TXOMIN GARMENDIA

MAIATZAREN 7'an, Donostiako Miramar jauregian, Etor eta Ostoa argitaletxeak plazaratutako bi libururen aurkezpena izan zan. *Montaña y aventura* dute izena liburu oiek eta opizioaren berri ondo dakitenak borobilduak noski. Jende asko bildu giñan aurkezpen ortan eta maiburuko izlariak ere etziran nolanaikoak: Sebe Peña, Santi Ianiz, Enrike Aierbe, Pelix Iñurrategi, Pello Esnal eta abar.

Egia da, Pelix Ibargutxi adiskideak billera orren berri eman zula orrialde ontan maiatzaren 9'an, zeaztasun prankorekin jakiña; nik ere, nere aldetik astiñaldi bat eman nai nioke, mendi zalea naizen ezker. Ez noski billera ortan bildu ziran askoren neurrikoa; aspaldi ikasi gendun kanta au pareparean dator ordea neregan:

*Mendian jaioa naiz
mendia det maite,
ezin ninteke bizi
menditik aparte.
Gaur egunen kalean
bizi banaiz ere,
ez naiz bizi mendira
begiratu gabe.*

Pelix Iñurrategi entzuteak, besteak-beste gogor zigortu zitun egunerokotako berri-emaille edo periodistak. Berak zionez, mendian gertatzen diran eriotz eta ezberri oartzun geiegi ematen diote.

Bi sailetan banatu litezke gaurko mendigoizaleak: batzuk, mendi apaletan gozatzen diranak; adibidez, Ernio'n, Aizkorri'n, Urbasa'n eta antzekoetan; eta besteak, urrutiko eta munduko mendirik altuenak igotzeaz amesten dutenak.

Azkenengo auen jokaera ulertu-eziña da ni bezelako askorentzat. Bizia arriskatuz ibiltzen dirala ezin ukatuko dute, eta zertarako? Inor inoiz igo gabeko mendi batera igotzea ondo ikusten det, zer dagon jakin-miñez, baiña bein ikusi ezker?

Munduko mendirik altuena, Eberest degu 8.848 metrotako gorakoarekin; 1953'garren urtean zapaldu zun gizonak lenengo aldiz; inglesak iritxi zuten garaipen ori eta etzuten nolanaiko ospea jasoko. Geroztik nagusi asko izan ditu mendi orrek, 1980'garren urtean lenengo euskalduna, Martin Zabaleta igotzen zalarik. Gaur ere, Ernio'ra igotzea bezin errez ez da izango Eberest igotzea, baiña igoera orrekin inor ez da arritzen orain. Gero eta errezago jarriko dala berriz, ziartu egon. Berdin gaiñontze-koak.

Zerbañ on ez dun gauzik ez omen da egiten ordea munduan eta mendigoizale ameslari oienak ere bai: mendi altu oien barrenean dauden biztanle askori bizi-bide ederra emango diote eta abar. Aurkeztutako bi liburu oiek ere jende orri esker sortuko ziran noski. Eskuetan artu eta irakurtzeko gogorik badegu beintzat, mendi oietara joanda bezelaxe jakin genitzaize bertako berriak. Ez da gutxi!